


# UDALATXERA IGOERAK




## UDALATXEKO IGOERAK

Mendi ikusgarri hau, Arrasateren eta Elorrioren artean dagoena, altxatzen da Deba eta Ibaizabal ibaien arroetako herrien eta baserrien gainetik. Tontorraren hegoaldeko hegalean Udala auzoa dago. Tontorrean ditu kareharrizko izugarritzko hormak eta haitzak, baita ere, leize-zuloak, harritzak, tximiniak eta abar. Landaredian nagusi da artadi kantauriarra, baina mendebaldeko hegalean badira pago batzuk ere.

Gailurreko ertz harritsuek zerra itxura ematen diote. Gandorreko tontor nagusiak dira: mendebaldetik ekialdera, Ormetako gaina (979 m), Ustapeko punta (1.026 m) eta Udalatx (1.117 m).

Gailurrera igotzeko, hiru ibilbide daude aukeran: Udalatik lehena, Besaidetik bigarrena eta Kanpanzartik hirugarrena.

## UDALATX UDALATIK




MIDE

<p><b>Ibilbidearen maila tekniko eta fisikoa neurtzeko metodoa. Zailtasun maila da 1etik 5era, txikienetik handienera.</b></p>	<b>Denbora</b>		<b>1h 55'</b>
	<b>Igoera desnibela</b>		<b>603 m</b>
	<b>Jaitsiera desnibela</b>		<b>35 m</b>
	<b>Distantzia horizontala</b>		<b>2,3 km</b>
	<b>Ibilbide mota</b>		<b>Zeharkaldia</b>
	<b>Ingurune naturalaren gogortasuna</b>		<b>3</b>
	<b>Orientazioa ibilbidean</b>		<b>3</b>
	<b>Zailtasuna desplazamenduan</b>		<b>3</b>
	<b>Egin beharreko esfortzua</b>		<b>2</b>




## UDALATX BESAIDETIK



**MIDE**










<p><b>Ibilbidearen maila teknikoa eta fisikoa neurtzeko metodoa. Zailtasun maila da 1etik 5era, txikienatik handienera.</b></p>	<b>Denbora</b>		<b>2h 15'</b>
	<b>Igoera-desnibela</b>		<b>624 m</b>
	<b>Jaitsiera-desnibela</b>		<b>34 m</b>
	<b>Distantzia horizontala</b>		<b>4,0 km</b>
	<b>Ibilbide-mota</b>		<b>Zeharkaldia</b>
	<b>Ingurune naturalaren gogortasuna</b>		<b>3</b>
	<b>Orientazioa ibilbidean</b>		<b>3</b>
	<b>Zailtasuna desplazamenduan</b>		<b>3</b>
	<b>Egin beharreko esfortzua</b>		<b>2</b>

## UDALATX KANPANZARRETIK




**MIDE**

**Ibilbidearen maila teknikoa eta fisikoa neurtzeko metodoa. Zailtasun maila da 1etik 5era, txikienatik handienara.**

<b>Denbora</b>		<b>1h 45'</b>
<b>Igoera-desnibela</b>		<b>531 m</b>
<b>Jaitsiera-desnibela</b>		<b>15 m</b>
<b>Distantzia horizontala</b>		<b>2,2 km</b>
<b>Ibilbide-mota</b>		<b>Zeharkaldia</b>
<b>Ingurune naturalaren gogortasuna</b>		<b>3</b>
<b>Orientazioa ibilbidean</b>		<b>3</b>
<b>Zailtasuna desplazamenduan</b>		<b>3</b>
<b>Egin beharreko esfortzua</b>		<b>2</b>



MAPA




IBILBIDEAREN AZALPENAK

- **(A) Igoera Udalatik.** Ibilbidea hasten da Udala auzoko goiko baserrietako aparkalekuan, iturriaren eskumako bidexkatik gora. Depositura iritsitakoan bideak hartzen du eskumatik, eta metalezko langa pasatu ostean bidegurutzean ezkerreara egiten du. Pixka bat aurrerago eskumarantz hartzen du, bidexkatik. Hor hasten da igoera gogorra, artadian zehar hasieran eta harriztan gora gero, gailurrera iritsi arte.

- **(B) Igoera Besaidetik.** Besaideko iturrian hasten da. Hor PR-Gi 96 ibilbidearen marra zuri-horiak jarraitzen ditu, iturria eskuman utzita. 1,2 km egin eta gero, Axperabeko bidegurutzean, hartzen du ezkerreara doan bidexka. Udalatik joanez gero PR- Gi 96 ibilbideko goiko bidetik, iristen da bidegurutze horretara, eta han eskumara egiten du. Bidexka hori zabaltzen da putzu bat igaro ostean, eta handik aurrera segitzen du. Bidegurutzean hartzen du ezkerreko bidexka (Minetako meategietara joateko inguru honetan ezkerretik doan pista jarraituko dugu) eta hau segitzen du, harri pilatxoak jarraituz aurrera, bidexka utzi barik. Leku batzuetan badaude pintura markak ere. Gora segituz tontorreraino doa.

- **(C) Igoera Kanpanzartik.** Igoera hasten da Kanpanzarko harrobian, bere ezkerretik gora doan bidexkatik. Bidezidorretik doa artadian gora Egomendi ingururaino. Hor eskumara egiten du. Laster artadia bukatu eta harriztan gora doa koba txiki batera iritsi arte. Han ezkerreara doa, eta pixka bat aurrerago bidegurutzean eskumara. Gero, bidexka segitzen du tontorreraino. Igoeran pintura marka zaharrek laguntzen dute bidea jarraitzen.






- **Udalatxeko arrezife pinakulua:** hura osatzen dute Kretazeo aldiko konplexu urgondarreko kareharriek. Jatotri biologikoa du, eratua sakonera txikiko ur garbi eta ondo oxigenatuetan, eta nabarmentzen zen ur azpiko erliebean modu isolatuan. Gaur egun egitura hori gailentzen da Arrasateren gainean modu ikusgarrian.

Ar



- **Artadi kantauriarra (Quercus ilex):** klima mediterraneoari lotutako basoa itxia dugu, gorde dena gainazaleko lurzoruetako eremuetan. Horri lotuta daude klima mediterraneoko espezie tipikoak, adibidez endalaharra (*Smilax aspera*).



- **Harkaiztegiko hegaztiak:** Udalatxan ikusi daitezke hegazti interesgarri ugari, sai arrea, sai zuria, belatza, belatxinga, mokohoria edo mendi tuntuna.

1



- **Asentsio ermita aztarnak:** antzinako eremitorioaren aztarnak daude ia mendiaren tontorrean, zelaigune txiki baten gainean, hegoaldeko hegalek malkartsuan zintzilik.

Bernardo de Balbuena poetak, 1585 urtean jaioa, "El Bernardo" bere olerki epikoan, aipatzen du gudari bat Karlo-magnoren kontra Orreagako batailan parte hartu zuten zaldunak zerrendatzean. Orreagako egitandia ustez 777. urte ingurukoa da, baselizaren antzinatasuna erakusten duena.

*"Gure fedea erakusten duen argira etorri zen  
Arbade santu monjearen otoitzengatik  
Udalatxeko harkaitz altuan bizi dena  
Eta mundua zuzentzen du bere baselizatik"*

XVI. eta XVII. mendeetan mezak ospatzen ziren bertan, inguruko ermitak lotuz ospatzen zen hiru eguneko errogatibetan. 1773. urtean mezak debekatu ostean, eraitsi egin zuten, eta hango teilak herrira jaitsi zituzten.



- GR 121 Bizkar bidea (Gipuzkoako bira)
- GR 123 Bizkaiko bira
- PR-Gi 96 Udala-Besaide
- Udalatxeko bira